

**Gratien ADEMA-ZALDUBIren eskuizkribuak**  
**3. eta 4. liburukiak argitaratzean**

Joan den urtean, Pazko astelehenez hemen berean aurkeztu genizuen Gratien Adema-Zaldubiren eskuizkribuen 2. liburukia berak eman izenarekin: **“Zaldubi artzain beltxaren neurtitzak”**.

Lehenbiziko liburukia berriz guhaurk izendatu genuen **“Saindu batzuen biziak”** eta hura aurkeztua izan zen 2007ko abenduaren 20an Senperen, haren heriotze mendeurrena ospatzearen karietarat.

Egun bertze bi liburuki plazaratzen ditugu: **“Kantikak”** berak egin kantikekin eta bertzea **“Prediku zenbait** Hazparnen eginak” deitu duguna.

Baina lehenik, bi hitzez, nor dugu Gratien Adema-Zaldubi ?

—1828an sortu zen, Senperen, apirilaren 14an ; sei haurrideetarik azkena.

—15 urte zituelarik, Larresoroko ikastetxe ezagutuan sartzen da.

—18 urtetan, adin berekoa duen eta hain famatua bilakatuko den Jean Baptiste Elissambururekin, paratzen ditu beren lehen bertsuak. Handik Baionarat doa apez ikasketak bukatzeko.

—1853an apeztu-eta berehala Larresoron dugu berriz, baina irakasle bezala aldi honetan.

—1854an Hazparnerat izendatzen dute bikario edo apez lagun ; hor egonen da sei urtez. Hain xuxen denbora hortakoak dira, egun, laugarren liburukian argitaratzen ditugun predikuak.

—1860an Bidarrain da erretore eta han egonen da hamabi urtez.

—1872an Atharratzerat izendatzen dute erretor nagusi eta han egonen da hemezortzi urtez. Sekulako liskarrak daramatza horko auzapez ‘gorriarekin’.

—1890ean Katedraleko Kalonje izendatzen dute, Iparraldeko hiru Lurraldeetan iraganik: Hazparne, Bidarra eta Atharratzen gaindi.

—1907an, abenduaren hamarrean eman zuen azken hatsa. Gorputza Senpereko etxondoko hilobi handian dagoela.

Anitz idatzi du eta kasik beti euskaraz.

Azvimarratu behar da ere, Euskaltzaleen Biltzarra sortu zelarik 1901an, Euskal Herri osoko euskaltzale handienak bilduz, Adema-Zaldubi ezarri zutela buru.

Jakin behar da ere euskal akademia baten beharra sentitua zuela aspaldi gure Adema-Zaldubik, 1894ko Azkueri egin gutun batean ikusten dugunez.

Predikari gaitza zen, boz ederra, sineste eta kultura handiko apeza eta hortik abiatzen da haren obra guzia. Haren fede-irizpide batzuk aldatu dira, haatik, geroztik, bertze edozein jendarte alorretan gertatu den bezalaxe...

Adema-Zaldubiren lanik gehienak argitaratuak izanak dira baina gaur agertzen ditugun prediku hauek ez haatik! Ordea, publikatuak diren horiek ere artxibategietan daude bakarrik. Hortako eta bereko Euskaltzaindiak erabaki du gehienen berriz publikatzea, eskuizkribuekin hasiz, zinez merezi baitute.

Argi eta garbi errepikatzen dugu: liburuki hauek, ez direla edizio kritiko edo arakatzaille batzuk; zenbait xehetasun laburrekin datoz, nor edo nor irakurtzen laguntzeko gisan; hots, publiko zabal-zabal batentzat apailatuak dira. Ikerleek hor dituzte eskuizkribuak, denak irakurgarriak, hala beharrean.

-----

Adema-Zaldubiren hizkuntzari dagokionez erran dezagun « lapurtera » deitzen den euskalkiari biziki atxikia dela, nahiz hitz batzuk hartzen dituen bertzerenetan, Hegoaldeko zenbait barne.

Adizki batzuk, haatik, beti berdin erabiltzen ditu, behin ere hutsegin gabe ; haietan : **gare, zare, zarezte, dire**, eta holakoak ; ez dugu-eta ikusi, ez **gira, zira, zirezte, dira** bezalako formarik.

Guk ez dugu deusik idatzi berak idatzi ez duenik, ohargabekeriaz ez bada. Erantsi ditugunak, hala-nola predikuen tituluak, makoen [...] artean daude. Egin duguna da, Adema-Zaldubiren lan gehienak ikuskatu ondoan, adibidez, **berdin** eta **bardin**, biak erabili baitzituen eta gure ustez adiera ñabardurarik sentiarazteko gogorik gabe, **berdin** ezarri dugu, batuan hala jarria delakotz. Baina grafia kontuetako xehetasun horiek ikusiko dituzue liburuan.

### 3. liburukia : « **Kantikak** »

Badira hor 26 eliza kantu, 260 bertsurekin. Arrakastatsuenak dirateke :

—“Oi Gurutzea” oraino ere kantatzen dena Ortzirale Sainduz (giristinoarentzat urteko egunik bereziena) eta ehorzketetan;

—“Adora dezagun”: beti kantatzen dena, Gorputz Sainduaren edo Bestaberritako kantu berezia baina bertze asko karietarat ere eman daitekeen kantika guziz maitatua;

—“Amodio Ohore”: Ama Birjinari buruzko kantu zoragarria, oraino ere Lurdeko edozein biltzarretan edo Andredena Marietan ematen dena, maitasun handiz;

—“Uholde baten pare”. Hau ez dugu gehiago kantatzen: hitz batzuk ez omen dira gaurko teologiari doazkionak. Baina kantika hau izan da, menturaz, bere aire miresgarria lagun, Ademaren arrakastatsuenetarik bat euskaldunen artean.

Azpimarratu behar da ere Santa Grazi sainduari Ademak bota zizkion 31 bertsoak! Baina harrigarria gelditzen dena da oraino ere gaur ontzat ekarriak direla Ademaren kantika batzuk, ehun eta zenbait urteren buruan! Erdarazkoetan ba ote da bihirik, adin horretakorik, oraino ere kantatzen denik elizetan ?

-----

### 4. liburukia : « **Prediku zenbait** » Hazparnen eginak (1854-1860)

Prediku hauetan ere, jadanik argitaratu lanetan bezala, guziek mirets dezakegu Adema-Zaldubiren mintzaira eta idazkera. Miatu ditugu haren mila orrialdez goiti eta denak berdin onak! Zinez, holako euskarazko eskuizkriburik ez da maiz aurkitzen: hainbertze orrialde eta denak hain garbiki ezarriak! Euskarazko lan horiei eman artak erakusten digu gure hizkuntzaren alderako estimu eta maitasun bat neurrigabea: deus ez zaio sobera gure hizkuntzari emateko eginahalako distira eta indarra!

Prediku horietan gai batzuk azpimarratuko genituzke :

[ Haurren giristinoki altxatzea ]

[ Haurren irakaskuntza eta hezkuntza ]

[ Mihi zikinak ]

[ Oraiko giristinoen lazakeria ]

[ Fedea ahuldu Frantziako Iraultzaren ondorioz ]

[ Euskaldunen fedea histen ari ]

[ Deboziona ]

Prediku horien funtsari dagokionez, erran dezagun orduko Eliza katolikoaren ikuspegiak ditugula hor, euskaraturik edo euskaldundurik, paperean garbi-garbia idatziak.

Guziz interesgarria zaiguna da ikustea nola jokatu zuen Adema-Zaldubik orduko jendearen giristino fedean finkatzeko, hori baitzen haren xede nagusia, ez haatik bakarra: argi ikusten baita prediku hauetan fede horren sustatzeko euskararen ahal guzien baliatzerat entseiatzen zela, gaia bezainbat landuz mintzaira, eta beraz euskara indartuz, hari balioa ematerakoan.

Guk ere, erran dena, lan hauek argitaratuz, gisa bat edo bertze, euskararen indartze edo sustatze hori bera dugu bilatzen.

Egia da euskara eskoletan eta gau-eskoletan gero eta gehiago irakasten dela baina euskara batu berri horrekin kasu egin behar dugu, ohiko mintza molde eta literaturekin hausturarik ez dadin gerta, hots, euskaldun zaharrendik bereiz ez gaitezen. Eta daukagu argitalpen hauek lagun gaitzaketela eginkizun horretan.

-----

Azken hitz: Gaur aipatzen dugu Adema-Zaldubi, baina erran behar dugu ere berriki atera dela, "Bidegileak" sailean, Jean Barbier Senpereko erretore idazle handiaren lanen bilduma bat. Halaber, eta beti sail berean, Dominique Dufauren biografia bat lehentxago agertu liburuaren gainerat.

Ez dira debaldetakoak izan, naski, arbaso horiek euskararen lantzeko isuri izerdiak: kontatu ditut goiz honetan hemen 10 euskarazko liburu edo liburuxka senpertarrenak aurten! Hor dira eta Franck Dolosor, Michel Mendiboure, Agustina Lassègue-Lartirigoyen, Auxtin Zamora eta Joset Lahetjuzanen lanak...

Hots, lehengoek utzi dizkiguten lan goresgarri horiek eman diezagutela fede eta kemen, Lurraldeetako ahal desberdinak kontutan hartuz, eta beraz urrats desberdinez, gelditzen zaigun bide luzean, indarrak elkartzuz joateko, gure hizkuntza ezagutua eta mintzatua izan dadin Euskal Herri osoan!

Henri Duhau